

Jardueren oroitza-txostena 2017

aurkibidea

1

BEKAK ETA IKERKETAREN SUSTAPENA

2

ARGITALPENAK

3

HERMES, ENTSAMENDU ETA HISTORIA ALDIZKARIA

4

GOGOETA ETA EZTABAIDA MINTZAGUNEA

5

GAZTERIA

6

EUSKARA

7

EUSKAL ABERTZALETASUNAREN AGIRITEGIA

8

EUSKAL ABERTZALETASUNAREN MUSEOA

9

SABINO ARANA SARIEN EKITALDIA

10

BESTE ERAKUNDE BATZUEKIKO HARREMANAK

11

ZABALKUNDEA / KOMUNIKAZIOA / INFORMATIKA

12

IZANDAKO EMAITZEN BALORAZIOA


1

BEKAK ETA IKERKETAREN SUSTAPENA

Alberto Onaindiaren gutunak, 1936-1945

Orain dela zortzi urte inguru hasi zen garrantzi handiko lana da. Lanaren zeregin behinenak Vatikanoko (Erroma) agiritegietan eta Estatuko beste agiritegi batzuetan gordetako 4.000 bat agiri batu, eurak transkribatu eta horien gaineko oharrak egitea da. Lan horren xede nagusia dugu Agirre lehendakariaren laguntzaile Alberto Onaindia abadeak 1936 eta 1945 urteen artean idatzitako gutunak berreskuratzea eta abadeak Gerra Zibilean zein Bigarren Mundu Gerran egindako kudeaketa-lanen berri eskuratzea.

2.1. *Pedro de Basaldúa: Euzkadi, la guerra antes del Estatuto* liburuaren aurkezpena




Pedro Basaldúa (Barakaldo, 1906-Buenos Aires, 1985) abertzaleak, idazleak eta Eusko Jurlaritzaren Argentinako ordezkariak idatzitako lan horrek bertatik bertara bizi izandako sasoi jakingarri horretan bizi izandakoak jasotzen ditu. Aipatutako aldia 1936ko uztailaren 7tik Jose Antonio Agirre lehendakaria, Gernikan, Eusko Jurlaritzaren burutzaz jabetu zen unera artekoa da. Inolako zalantza barik, sasoi erabakigarria izan zen Euskadiko historia garaikidean, eta horretan gertaturikoek berebiziko garrantzia izan zuten eta hein handi batean baldintzatu zuten Euskal Herriaren geroko bilakaera eta euskal herritar askoren zoria.

2.2. *Eugenio Ibarzabalen Días de ilusión y vértigo. 1977-1987* liburuaren aurkezpena

Eugenio Ibarzabalek liburu hau aurkeztu zuen Toti Martínez de Lezea euskal idazleak, Arabako diputatu nagusi ohi Juan M^a Ollorak eta Gipuzkoako diputatu nagusi ohi Roman Sudupek lagunduta. Liburuan, idazlearen bizipenez gain, Euskadiko trantsizio-aldiko mugarrak eta XX. mendeko euskal abertzaletasunaren historia jorratzen dira, pertsona esanguratsu askori egindako elkarrizketak direla bide.



2.3. *Historia de EAJ-PNV en Álava durante la Guerra Civil. Del 18 de julio a los asesinatos del Puerto de Azazeta* liburuaren aurkezpena



Liburuaren egileak, Román Berriozabal Azpitarte gasteiztarak, sakontasunez eta zorroztasunez ikertu ditu gizon ondratu baten bizitzaren azken hilabeteak. Izan ere, José Luis Abaitua, militante abertzalea izateagatik eta haren auzokideen artean zeukan ospeagatik, atxilotu eta kartzelaratu zuten, eta gezurretan askatu ostean, basakeriaz erail zuten Azazetako mendatean 1937ko apirilaren 1ean, harekin gatibu egondako beste hamabost lagunekin batera, besteak beste, Gasteizko alkate Teodoro González de

Zaraterekin batera.

2.4. DEIA egunkarian argitaratutako artikuluak

2017ko ekitaldian, Sabino Arana Fundazioak “Historias de los vascos” saileko kolaborazioak koordinatu ditu DEIA egunkariarentzat. Sail horretan, oldez edo moldez Euskadiko historia hezurmamitu duten gai historiko eta antropologikoak jorratzen dira.

2017an, ondoko guztiek egin dituzte kolaborazioak Sabino Arana Fundazioarentzat eta DEIA egunkariarentzat: **Óscar Álvarez Gila, Xabier Kintana, Jabier Aspuru, Luis Bilbao Larrondo, Unai Garabieta, Iñaki García Uribe, Olga Fernández Vicente, Nere Jone Intxaustegi Jauregi, Eduardo Alonso Olea, Joseba Lopezortega, Andres M^a Urrutia Badiola, Amaia Mujika Goñi, Leopoldo Zugaza, Joseba Agirreazkuenaga, José Félix Azurmendi, Xabier Irujo y Ane Undurraga, Aleix Romero Peña, Pablo Cepeda, Gregorio Arrien, Jon Penche, Marian Álvarez, José Ignacio Salazar Arechalde, Aitor Miñambres, Pello Fernández Oyaregui, Mikel Magunazelaia, Igor Barrenetxea, Fernando Mikelarena, Eugenio Ibarzabal, Iñaki Anasagasti, Xabier Ormaetxea, Jon Penche, Josu Chueca, Unai Aranzadi, Jean-Claude Larronde, Adrián Almeida, José Arrue, Roman Berriozabal, Javier González de Durana, José M^a Tapiz, Jabier Aspuru,** bai eta Sabino Arana Fundazioko teknikariak eta historialariak ere.

2017ko ekitaldian, **hermes** aldizkariaren 3 ale argitaratu dira, hain zuzen ere, 55, 56 eta 57. zenbakiak.

Hermes aldizkariaren 55. zenbakiaren aurkezpena

2017an, 100 urte bete dira Hermes aldizkariaren lehen alea argitaratu zenetik, bai eta abertzaleek euskal erakunde batean –Bizkaiko Foru Aldundian– gehiengoa lehen aldiz lortu zutenetik ere. Mendeurren horiek direla eta, Sabino Arana Fundazioak HERMES pentsamendu eta historia aldizkariaren ale berezia aurkeztu zuen maiatzaren 4an. Ale berezi horretan, herrialdeko 29 pertsona ospetsuk gogoeta egin zuten euskal aberriaren XXI. mendeko erronkez eta gure erakunde-esparruaren aukerez, azkena aberrigintzaren eta gizartegintzaren eragileztat hartuta.

Argitalpen monografikoak arduradun politiko gorenen, goi-kargudunen, hezkuntza-arloko ordezkarien, historialarien, artikulugile ospetsuen eta abarren kolaborazioak jasotzen ditu, besteak beste, ondokoenak: Iñigo Urkullu lehendakaria, Andoni Ortuzar, Bakartxo Tejeria, Carlos Garaikoetxea, José Antonio Ardanza, Unai Rementeria, Markel Olano, Eider Mendoza, Juan M^a Aburto, Izaskun Bilbao, Jokin Bildarratz, Andres Urrutia, Joseba Agirreazkuenaga, Mikel Xabier Aizpuru, Juan José Álvarez, José Ramón Beloki, José Manuel Bujanda, Javier Elzo, Ander Gurrutxaga, Eugenio Ibarzabal, Daniel Innerarity, Santiago Larrazabal, Jean Claude Larronde, Francisco Letamendia, Koldo Mediavilla, Gregorio Monreal, Txema Montero, Roman Sudupe eta Ramón Zallo.

Hermes aldizkariaren 56. zenbakiaren aurkezpena. EGUNA egunkariaren 80. urteurrena



EGUNA, euskara hutsean idatzitako lehen egunkariaren sorreraren 80. urteurrena dela eta egindako omenaldien barruan, egunkari historiko horri buruzko monografikoa argitaratu zen HERMES aldizkariaren 56. zenbakian eta ekainaren 13an argitaratu zen, hau da, EGUNAREN azken zenbakia argitaratu zen egun berean. Duela 80 urte izan zen hori, Francoren tropek Bilbo okupatu baino egun batzuk lehenago.

Juan Mari Aburtok, Bilboko alkateak, Juan M^a Atutxak, Sabino Arana Fundazioko lehendakariak, eta Jose Antonio Rodríguez Ranzek, Hermes pentsamendu eta historiako

aldizkariaren zuzendariak, Euskaltzaindiaren egoitzan aurkeztu zuten ekainaren 12an EGUNA egunkariari buruzko ale berezi hau.

HERMES aldizkariaren 56. zenbaki berezi horretan, euskararen eta euskal kulturaren alorreko adituek eta ordezkariak parte hartu zuten, ordura arteko euskarazko lehen egunkaria eta bakarra sortu zeneko testuingurua, horren garrantzia eta egungo hedabideei egindako ekarria aztertzeko.

HERMES aldizkariaren 56. zenbakian, ondoko lanak aurki ditzakegu:

- Luis Alberto Aranbarri *Amatiño*: “EGUNA astekariaren eredua”.
- Joan Mari Torrealdei: “1937ko EGUNAREN urteurrena. Egunkariaren aldarria Euskal kazetaritzan (1976-1986). Zertzeladak”.
- Joseba Agirreazkuenaga: “Egunaren sorrera (1937), euskaldunon kontakizunean: Ezina egina”.
- Xabier Altzibar: “EGUNA egunkaria (1937): Zer dakigu idazleez?”.

Era berean, 2017ko otsailean, Euskaltzaindiaren egoitzan gai horri buruz eginiko jardunaldiko mahai-inguruaren kronika –Urtzi Urrutikoetxea kazetariak idatzita– jaso zen. Idurre Eskisabelek (kazetaria eta UPV-EHUko irakaslea), Jabi Onaindiak (Bizkaia Irratiko zuzendaria), Odile Kruzetak (EiTBren irratietako zuzendaria) eta Iñaki Mendizabalek (Euskaltzaindiko komunikazio arduraduna) parte hartu zuten jardunaldian.

Bestetik, Martxelo Otamendik, *Berria* egunkariko zuzendariak, Bilboko alkate Juan M^a Aburto egindako elkarrizketa jaso zen, besteak beste, alkateak eta Bilboko hiriak euskararekin duten loturaren inguruan. Gainera, BilbaoArte-ko lau artista gazteren lankidetzak artistikoa izan izan zuen 56. zenbakiak: Elisabeth Pérez Fernández, Ruth Juan, Juan Malk eta Aitor Arakistain.

Hermes aldizkariaren 57. zenbakiaren aurkezpena. Hizkuntza-politika

“Euskarak tokia hartu ahal izateko hizkuntza politikaz” izeneko mintegia egin zen ekainaren 14an, Euskaltzaindiaren eta Sabino Arana Fundazioaren ekimenez eta, bertan, Euskal Autonomia Erkidegoko, Nafarroako eta Ipar Euskal Herriko hizkuntza-politikako arduradun nagusiak batu ziren iritzia trukatu, Euskal Herriko lurraldeetan arlo horretan garatzen ari diren proiektuak eta lan-ildoak ezagutu eta etorkizunean landu daitezkeen koordinazio-aukerak aztertzeko xedez.

Jardunaldi horretan atera ziren ondorioetan eta gure lurralde historikoetako erakundeetako zein kultura arloko ordezkari nagusien idatzizko kolaborazioetan oinarri harturik, Hermes aldizkariaren ale berezi hau (57. zenbakia) atondu genuen.



Hain zuzen ere, ale bereziak ondokoen kolaborazioak jasota daude: **Bingen Zupiria, Ana Ollo, Mathieu Bergé, Jon Aizpurua, Andres Urrutia, Jasone Agirre, Iñaki Alegria, Kike Amonarriz, David Anaut eta Rebeka Ubera, Beñat Arrabit, Mikel Arregi, Iñaki Arruti, Alberto Barandiaran, Garbiñe Biurrun, Sebastien Castet, Jean-Baptiste Coyos, Miren Dobaran, Ana Esther Furundarena, Laura Garrido, Roberto González de Viñaspre, Andrés Iñigo, Iñaki Irazabalbeitia, Mikel Irizar, Lander Martínez, Iñaki Martínez de Luna, Igone Martínez de Luna, Idoia Mendia, Garbiñe Mendizabal, Mertxe Mujika, Inma Muñoz, Patxi Sáez Beloki, Jon Sarasua, Jon Zarate** eta mintegiko nahiz ale berezi honen koordinatzaile izan den **Erramun Osa**.

2017ko ekitaldian, Sabino Arana Fundazioaren gogoeta eta eztabaida mintzagunearen ardatza haxe izan da: batetik, herrialde honen oroimen kolektiboan iraun duten hainbat urteurrenen oroitzapena eta, bestetik, nazioarteko oihartzuna izan duten gertaera gogoangarri batzuen urtemugena. Horien guztien haritik, etorkizunera begira jarri gara XXI. mendean bizi garen ingurumariaren ezaugarriak objektibotasunez landuta. Jarduera horietan guztietan, batera eta era koordinatuan lan egin dute Sabino Arana Fundazioaren agiritegiak eta museoak.



4.1. ***Ekonomia eta gizarte agenda berrirantz? Politika demokratikoaren erronkak***



Zalantzarik gabe, ongizate-estatuak hein handian lagundu du pertsonen duintasuna sendotzen eta gizarte-bakea ahalbidetzen Europako herritarren artean, gerraren osteko Mendebaldeko Europako gizarte- eta ekonomia-sistema egituratu du eta nortasun-ikur nabarmena bilakatu da europarrentzat. Ildo horretan, hazkunde ekonomikoa ahalbidetu eta errentaren birbanatze artea uztartu duten politikek ongizate-estatuaren funtsezko oinarriak jagon dituzte, gutxi gorabehera, azken

hamarkadara arte. Alabaina, krisialdi ekonomikoak eta mota askotako beste alderdi batzuek apurka-apurka higitu dituzte zuzenbidezko gizarte-estatua orain arte bermatzen zituen ekonomia- eta gizarte-tresnak.

Gizarte-ongizatearen maila eskastu dela argiro jakinda, lehengo maila zelan berreskuratu aztertzeke helburuz, Sabino Arana Fundazioak eta Europako Alderdi Demokratikak jardunaldia egin zuten maiatzaren 12an, arlo horretako adituen eskutik; jardunaldian parte hartu zuten hizlariak arreta jarri zuten, bereziki, Europako iparraldeko herrialdeek darabiltzaten konponbide eta/edo ereduetan.

Xabier Aierdi soziologoak koordinatutako jardunaldia hiru mahai-ingurutan egituratu zen: lehenengoan, Soziologiako doktore eta UPV-EHUko irakasle Imanol Zuberok eta Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiken Saileko soziologo Luis Sanzok enpleguari lotutako gaiak jorratu zituzten, enplegua gainbehera bizian duen gizarte batean, enplegu beteko errezeta zaharrak baliatu nahi diren testuinguruan.

Bigarren mahai-inguruan, Ignacio Zubirik, UPV-EHuko Herri Ogasuneko katedradunak; eta Guillermo Dorronsorok, Deusto Business School-eko dekanok (Deustuko Unibertsitateko Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultatea), ekonomia- eta gizarte-sistemen iraunkortasunaz jardun zuten.



Azkenik, Deusto Business School-eko irakasle eta Alboan GKEko kide Manfred Noltek eta Stockholmeko Unibertsitateko Politika Zientzien irakasle emeritu Daniel Tarschys-ek “Europa eta ekonomia- nahiz gizarte-sistemak eraldatzeko esperientzia aberasgarriak” izeneko gaia jorratu zuten eta Europako eredu aurrerakoien eredua aletu zuten.



4.2. Israel eta Palestina: bakea lortzeko beste aukera bat?

Berrogeita hamar bat analista politikok, erakundeetako ordezkariak, hezkuntza-arloko ordezkariak, kontsulek eta hainbat antolakundetako kidek parte hartu zuten apirilaren 27an “Israel eta Palestina: bakea lortzeko beste aukera bat?” izeneko mintegian. Sabino Arana Fundazioak eta Europako Demokraten Institutuak (IED) antolatu zuten mintegia, bilakaera historikoaren ikuspegitik abiatuta eta egungo egoeraren argitan, israeldarren eta palestinarren arteko bizikidetzaz eta auzokidetasun adiskidetsua lortze aldera, etorkizunean zer aukera dagoen aztertzeko helburuz.

Mintegian, Israel eta Palestinako giza eskubideen aldeko ekintzaileek jardun zuten hizlari, hain zuzen ere, Yaniv Shacham, Peace Now erakundeko Hedabide Berrien eta

Kanpainen Zuzendaria, eta Bassem Eid, giza eskubideen aldeko ekintzaile palestinarra eta analista. CNiko zuzendari ohiak, Jorge Dezcallarrek, moderatzaile lanetan jardun zuen.

Eid “nahikoa ezkor” agertu zen bakea lortu ahal izateko hogeita hamar urte igaro baino lehen, haren iritziz, Palestinako Agintaritzako egungo agintariak “egungo egoerari eutsi nahi diotelako” eta boterean jarraitu nahi dutelako, palestinarrak “gatazkaren gatibuak” diren artean. “1948. urtetik gaurdaino, palestinarrak ez du aukera bat ere alferrik galdu” bakea lortzeko, kexatu zen prentsaurrekoan.

Bassen Eidek adierazi zuen Palestinako Agintaritzaren palestinarren aurkako “errepresio politikei” aurre egin ezean, oso zaila izango dela bake-prozesuari ekitea eta, gainera, Hamaseko extremistak indarturik aterako direla.

Era berean, Bassem Eid Israelen aurkako Boikota sustatzen duen mugimenduaren aurka azaldu zen. “BDS delakoa giza eskubideen aldeko mugimendutzat aurkezten du bere burua, baina mugimendu horren helburu bakarra Israel suntsitzea da.

Bestetik, Yaniv Shacham ekintzaile israeldarrak adierazi zuen oraindik ere bakea lor daitekeela, Palestinako estatua eratuta. Horretarako, Israelek orain dela 50 urte okupatutako Zisjordanian egiten diren kokaguneak baztertu behar dira; bestela, ekonomiaren ikuspegitik, Palestinako estatua ez litzateke bideragarria izango.



Shachamek azpimarratu zuen israeldarrek ulertu behar dutela Zisjordaniako okupazioaren aurka egoteak ez dakarrela Israelen aurka egotea. “Israel eta okupatutako lurraldeak bereizi behar dira”, esan zuen.

Jardunaldian, parte-hartzaileek egiaztatu zuten gatazka beliko horrek garrantzia galdu duela nazioarteko komunitatearentzat, ez bakarrik Europa eta Estatu Batuentzat, ezpada, herrialde arabiar eta musulmanentzat, Siriako gerrak, Estatu Islamdarrak,

yihadisten terrorismoak eta eskualdeko boterea eskuratzeko Saudi Arabiaren (suniak) eta Iranen (xiiak) arteko lehiak albo batera utzi duelako.



4.3. X. Bilboko Elkarrizketak. Europa-Latinoamerika: merkataritza-harremanen joerak, ondorioak eta eragin geopolitikoak

Europaren eta Latinoamerikaren arteko merkataritza-hitzarmenen egungo egoera eta etorkizuneko erronkak aztertzeko helburuz eta 2017 eta 2018 urteetan, Argentinan, Txilen, Mexikon, Brasilen eta AEBn (parlamenturakoak) egingo diren hauteskundeen ingurumarian, X. Bilboko Elkarrizketak antolatu zituen Fundazioak urriaren 9an Europako Alderdi Demokrataren (PDE-EDP) laguntzaz.

Jardunaldian, Latinoamerikako eta Europako politikariek, katedradunek eta adituek parte hartu zuten, besteak beste, Miguel Ceballos (Cecilia Malmström Merkataritza komisarioari atxikitako kabineteko burua); Inmaculada Rodríguez-Piñero (Europako Parlamentuko Sozialisten eta Demokraten Aliantza Progresista taldekoa) eta Izaskun Bilbao Barandica (Europako Parlamentuko ALDE taldeko presidenteordea) Europako Parlamentuko kideak; Carlos Malamud, Elcano Errege Institutuko kidea; Alfredo



Barnechea (kazetaria eta lehendakaritzarako hautagai ohia Peruko 2016ko hauteskunde orokorretan); Francisco Javier Arrieta Idiakez (Deustuko Unibertsitateko Lan Zuzenbideko irakaslea); Gianluca Susta, senatari italiarra eta PDE-EDP alderdiko presidenteordea; eta Gutenberg Martínez (Miguel de Cervantes Unibertsitateko errektorea eta Txileko PDC alderdiaren aholkulari nazionala)

Hasiera-hitzaldian, Miguel Ceballosek ondokoa adierazi zuen: “Trumpen politikaren albo-kaltearen ondorioz, Latinoamerikaren eta Europaren arteko aliantza sendotu da”. Cecilia Malmström Merkataritza komisarioari atxikitako kabineteko buruaren iritziz, “Latinoamerika bazkide estrategikoa da Europar Batasunarentzat. Ohituraz, merkataritza eta inbertsioak izan dira gura lurraldeen arteko abangoardia eta oinarri. Europar Batasunak Mexikorekin (2000) eta Txilerekin (2001) sinatu zituen lehen aldeko merkataritza-hitzarmenak. Handik aurrera, merkataritza-hitzarmenak sinatu ditugu edo negoziatzen ari gara Latinoamerikako eta Karibeko herrialde guztiekin, Kuba, Venezuela eta Boliviarekin izan ezik”.



4.4. Euskal Kulturaren Memoria



Zinema, pintura, eskultura, literatura-bertsolaritza, euskara, kultura-mugimendu eta beste arlo batzuetako adituek parte hartu dute Bilbao 700 Fundazioak eta Sabino Arana Fundazioak antolatutako jardunaldietan, urriaren 18an eta 19an, XX. mendearen lehen herenean sortu ziren euskal kulturaren adierazpen eta agerkizunen oroitzapena aldarrikatzeko

helburuz, bereziki, diktadura garaian, frankismoak ezarritako baldintza latzen mendean garatu zirenean.

Izan ere, frankistek garaipena eskuratuta, gerraren ondorio latzenetakoa izan genuen milaka euskal herritarren exodoa, jazarpenari eta errpresioari ihesi, besteak beste, idazle, margolari, musikari eta artistena. Horiek guztiak, atzerrialdian, euskal kultura mundura zabaltzeko ahaleginetan aritu ziren.

Euskal kulturaren arloan jarduten dugun lagunok —eta bide batez, kultur kezka dugunok— badakigu margolari eta eskultore ugari izan genituena mende horren lehen herenean; susmatzen dugu euskal zinema ere izan zela, badakigu gure idazleak hartu-emanetan izan zirela munduko beste bazter askotako egile ospetsuekin, musikariak eta kultura-mezenasak izan zirela... Zoritzarrez, ez dakigu askoz gehiago, ozta-ozta gorde dugu oroitzan gure kulturaren gaineko txatalen bat. Eta premiazkoa bezain garrantzizkoa da oroimen hori berreskuratzea.



Hala, hilaren 18an, ondokoek parte hartuko dute: Bilboko Arte Ederren Museoko zuzendari ohia, Javier Viar; Labayru Fundazioko zuzendariordea, Igone Etxebarria; eta Alberto López Echevarrieta kazetaria, zineman aditua.

Hilaren 19an, berriz, ondokoek jardungo zuten: EHUKo Historia Garaikideko doktore Josu Chueca; Joseba Lopezortega historialaria; eta Goi-mailako Musikako tituludun eta Psikologiako lizentziadun Mercedes Albaina.



4.5. Egiaren ostea: politika eta komunikazioa

“Egiaren ostea: politika eta komunikazioa” izenburuaren ildotik, komunikazio-berrikuntzari buruzko jardunaldia egin zen azaroaren 7an, Europako Demokraten Institutuarekin (IED), lankidetzan.

Eztabaidaren muinean, alderdi politikoak izan genituen, bai eta alderdien informazio-politikak, hedabideak eta iritzi publikoaren sorkuntza gailentzeko ahaleginak ere. Bestalde, jendearen portaerak aztertu ziren, sare sozialek eskaintzen duten informazioaren etorbide gisa hartzen duten jarrerari erreparaturik.



Horretarako, besteak beste, ondokoek parte hartu zuten: Juan Antonio Giner, kazetaria eta Innovation taldeko zuzendaria (<http://innovation.medcia/>); Marco Ricorda, ALDE taldearen identitate digitalaren arduraduna Europako Parlamentuan; Miquel Urmeneta, kazetaria eta Universitat Internacional de Catalunya (UIC) komunikazio-irakaslea; eta Carmen Beatriz Fernández, DataStrategia Consultores (<http://www.datastrategia.com/>) enpresako presidentea. Beste alde batetik, Rafael Susok (<http://briskteam.com/rafael-suso/>) koordinatu zuen mintegia.

Aurrekoez gain, berrogeita hamar bat kazetarik, Eusko Legebiltzarrean ordezkartzen duten alderdi politikoetako komunikazio arduradunek, erakundeetako ordezkariak,

UPV-EHUko, Deustuko Unibertsitateko eta Mondragon Unibertsitateko kazetaritza eta komunikazio irakasleek parte hartu dute.



4.6. “Basque Country. Bilbao City”. Aurkezpena European Movement Norway mugimenduarentzat.

Azaroaren 27an, European Movement Norway mugimenduari atxikitako berrogeita hamar lagun inguruk parte hartu zuen jardunaldi batean, gure erakundeak gure historia, gure kultura eta gure ohiturak ezagutzeko asmoz. Sabino Arana, ikurrina, Agirre lehendakaria, Ekonomia Ituna eta kupoa izan ziren gairik jakingarrienak Norvegiatik etorritako herritarren talde horrentzat.



Jardunaldian, ondokoek jardun zuten hizlari: Mikel Burzako, EAJ-PNV alderdiaren Kanpo Harremanetarako Nazioarteko Hedapenerako arduraduna; eta Luis Cañada, Norvegiako ohorezko kontsula Bilbon.

European Movement deritzon mugimendua nazioarteko antolakundea da eta gizarte zibilaren joera politiko, ekonomiko, sozial eta kultural guztiez jakiteko asmoa du. Horren helburu nagusia da Europa batu eta

federalaren ezarpena bultzatzea eta horretan laguntzea, giza eskubideen errespetuan, bakean, demokrazian, askatasunean eta herritarren parte-hartzean oinarrituta.

4.7. Garapenerako lankidetzari buruzko jardunaldia



“Euskadi Europako migrazio-agenda berriaren aurrean: eskualdeen zeregina Europako asilo- eta migrazio-politikak direla eta”

“Euskadi Europako migrazio-agenda berriaren aurrean: eskualdeen zeregina Europako asilo- eta migrazio-politikak direla eta” deritzon gaiaren ildotik, lankidetzaren eta migrazioen inguruko berrogeita hamar bat adituk iheslarien giza krisia eta, asilo-eskaera ugarietan aplikatzeko helburuz, European nahiz Euskadin lantzen ari diren politikak aztertu zituzten Sabino Arana Fundazioan.

Jonan Fernándezek, Eusko Jaurlaritzako Giza Eskubide, Bizikidetzak eta Lankidetzako idazkari nagusiak; Joana Abrisketak, Deustuko Unibertsitateko Nazioarteko Zuzenbide Publiko eta Nazioarteko Harremanetako irakasleak; eta Gemma Pinyol-Jiménezek,

Instrategies erakundeko migrazio-politika eta aniztasuneko zuzendari eta GRITIM-UPFko (Pompeu Fabra Unibertsitatea) ikertzaile laguntzaileak, jardun zuten hizlari.

Jonan Fernándezek Eusko Jaurlaritzaren iheslarien inguruko politika eta estrategiak azaldu zituen.

Joana Abrisketak, berriz, Europako asilo-sistemaren nondik norakoak azaldu zituen eta etorkizuneko erronkez eta aukerez mintzatu zen.

Amaitzeko, Gemma Pinyol-Jiménezek ondoko gaia jorratu zuen: “estatuz kanpoko eragileen eginkizuna migrazioen kudeaketan eta Europako etorkizunean”.



Ondoko eztabaida-saioa Eusko Jaurlaritzako Biktimen eta Giza Eskubideen zuzendariak, Monika Hernandok, bideratu zuen eta, bertan, lankidetz-agentzia eta -erakundeetako arduradunek, irakasleek eta bestek parte hartu dute, hala nola, honako hauek: José Ignacio Alonso, Save the Children (Euskadi) GKEko Sentiberatze eta Haur Politiken teknikaria; Fátima Aman, Zabalketa elkartekoa; Pablo Angulo, CRIA SL, SUMAE SCoop eta BIKOnsulting S. Coop. Sozietateetako bazkidea; Rosabel Argote, CEAR-Euskadi erakundearen Gasteizko arduraduna; Dolores Azpiazu, El Sitio elkartekoa; Bernart Baltza, Agiantza elkartekoa; Paul Ortega eta Eukén Barreña, Eusko Jaurlaritzako Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziakoak; Anacleto Bokessa, MAIBeko Nazioarteko Harremanetako idazkaria; Susana Cuesta, Cáritasekoa; Olatz Ecenarro Ayuda en acción/Ekintzaz Lagundu GKEkoa; Rafael Ferrer, Zabalketa elkarteko presidentea; Elsa Fuente, UNICEF GKEren Euskadiko koordinatzailea UNICEFen Espainiako Batzordean; Sofía Marroquín, Oxfam elkarrearen Iparraldeko lurralde-arduraduna; Begoña Ocio, Pax Romana elkartekoa.



4.8. Euskal prentsaren hastapena, oraina eta geroa. EGUNA, euskarazko lehen egunkariaren 80. urteurrena

2017KO urtarrilean, 80 urte bete ziren EGUNA egunkaria, euskara hutsez argitaratutako lehen egunkaria, Bilboko Posta kaletik argitara eman zutenetik. 80. urteurrena gogora

ekartzeko, hainbat omenaldi antolatu ziren Bilboko Udalarekin, Euskaltzaindiarekin, Deia egunkariarekin eta Euskalpenklubarekin lankidetzan. Horrela, otsailaren 2an, plaka bat jarri zuten egunkaria sortu zeneko atarian, eta otsailaren 10ean jardunaldi bat antolatu zen Euskaltzaindian. Jardunaldi horretan, egunkariaren ibilera laburra (sei hilabetekoa) baina bizia aletu zen eta euskarazko lehen egunkari horrek gaur egungo hedabideei egin dien ekarriaz jardun zuten.

Jardunaldia hiru mahai-ingurutan egituratu zen. Lehenengoan, “Eguna 1937” izenekoan, DEIA egunkariko Juan Carlos Ibarrek jardun zuen moderatzaile eta Joseba Agirreazkuenagak, UPV-EHUko Historia Garaikideko katedradunak, eta Xabier Altzibar, euskal literaturaren eta hizkuntzaren ikertzaileak, hitz egin zuten.



Bigarren mahai-inguruan, “Egunerokoak 1986an” izenekoan, Euskaltzaindiko kide Adolfo Arejitak jardun zuen moderatzaile eta Luis Alberto Aranberri *Amatiño* kazetariak eta Joan Mari Torrealдай kazetari eta soziologoak berba egin zuten.

Azkenik, “Hedabideen eta euskararen gaur egungo erronkak” izeneko saioan, Idurre Eskisabel, Javier Onaindia, Odile Kruzeta eta Iñaki Mendizabal kazetariak parte hartu zuten. EuskalPenKlubeko Urtzi



Urrutikoetxeak, berriz, jardun zuen moderatzaile. Mahai-inguru horretan, euskararen egoera aztertu zen egungo hedabideetan.

EGUNAREN historia

1936. urtearen amaieran, Gerra Zibilaren testuinguruan, faxisten aurrerakadak apurka-apurka Bizkaia setiatzen zuela, euskarazko egunkaria argitaratzeko ekimena sortu zen Bilbon. Hala, 1937ko urtarrilaren 1ean, Bilboko Posta kaleko 17an, euskara hutsez argitaratutako lehen egunkaria, EGUNA izenekoa, sortu zen. Gerra Zibilaren bete-betean jaiotako euskarazko lehen egunkari hura ekainera arte kaleratu zen (hain zuzen ere, 1937ko ekainaren 13ra arte), hau da, frankistek Bilbo okupatu arte.

Egunkari hartan, oro har, 25 urtetik beherako euskaltzale gazteak aritu ziren. Gerrako egunkaria izan zen, batik bat, 1937ko martxoaren 31tik aurrera, hots, Emilio Mola jeneralaren erasoaldia hasi zenetik aurrera. Egunkariaren gehieneko zabalkundea 10.000 alekoa izan zen.



Esteban Urkiaga *Lauaxeta* olerkariaren eskutik, EUZKADI egunkarian argitaratzen zen euskarazko orria izan zuen aurrekari EGUNAK eta biek ala biek abertzaletasuna izan zuten oinarri. Euzko Alderdi Jeltzaleak sustatu zuen EGUNA eta, hortaz, “JEL” lelo sabindarra erabili zuen azpigitulu gisa.

Molaren hegazkinek, nazien Condor legioak eta Italiako hegazkin faxistek Bizkaiko frontea triskildu zutenean, gerraren amaiera eta EGUNA egunkariaren azkena bat-batean etorri ziren; egunkariak azken alea argitaratu zuen 1937ko ekainaren 13an. Ekainaren 19an, berriz, Bilbo soldadu frankisten esku geratu zen. Egunkariaren bizitza ez zen sei hilabetekoa izan. Hala ere, egunkariak kaleratu zituen 139 aleetan, argi geratu zen euskarazko egunkari bat argitara zitekeela.



4.9. Pedro de Basaldúa: Euzkadi, Estatutuaren aurreko gerra

Josu Erkorekak, Eusko Jaurlaritzako Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuak, eta Iñaki Anasagasti senatari ohiak ondoko liburua aurkeztu zuten urtarrilaren 19an: “Euzkadi, Estatutuaren aurreko gerra. Pedro de Basaldúa”.

Pedro Basaldua (Barakaldo, 1906-Buenos Aires, 1985) abertzaleak, idazleak eta Eusko Jaurlaritzaren Argentinako ordezkariak idatzitako lan horrek bertatik bertara bizi izandako sasoi jakingarri horretan bizi izandakoak jasotzen ditu. Aipatutako aldia 1936ko uztailaren 7tik Jose Antonio Agirre lehendakaria, Gernikan, Eusko Jaurlaritzaren burutzaz jabetu zen unera artekoa da. Inolako zalantza barik, sasoi erabakigarria izan zen Euskadiko historia garaikidean, eta horretan gertaturikoek berebiziko garrantzia izan zuten eta hein handi batean baldintzatu zuten Euskal Herriaren geroko bilakaera eta euskal herritar askoren zoria.



Euskal abertzaletasunarekiko konpromisoa oinarri harturik, altxamendu militarren aurka jo eta gobernuaren esparruan gogoz aritu zen gizonaren kontakizuna dugu liburuaren edukia. Hasteko eta bat, EAJk iradokitako José Echevarría Novoa Bizkaiko gobernadore zibilaren idazkaria izan zen, eta geroago, Eusko Jaurlaritza eratu ondoren, Agirre lehendakariaren laguntzailea eta Eusko Jaurlaritzaren ordezkaria izan zen Argentinan.

Pedro Basalduaren zeregin askoren artean, azpimarratu behar dugu Jagi-Jagi egunkariko idazlari edo erredaktorea izan zela, eta berak idatzitako artikulua batengatik, Larrinagako kartzelan sartu zuten hedabide horretako lehen erredaktorea izan zen. Euzkadi egunkariko Kontseilu Politikoko kidea ere izan zen; Gudari aldizkariko zuzendaria izan zen, Esteban Urkiaga “Lauaxeta” atxilotu ondoren; Eusko Langileen Alkartasunako kide eta hedatzailea izan zen; AVASCeko (Agrupación Vasca de Acción Social Cristiana) irakaslea izan zen; Euskal Ikaskuntzen Institutuko bazkide sortzailea izan zen eta Eusko Deya egunkariko zuzendaria izan zen 1951n. Era berean, urte askotan, Argentinako Idazleen Elkarteko kidea izan zen.



4.10. Días de ilusión y vértigo. 1977-1987



“Días de ilusión y vértigo. 1977-1987” izenburua daukan liburuaren aurkezpena baliatuta, otsailaren 22an, Eugenio Ibarzabal kazetari eta idazle donostiarrak hitzaldia eman zuen Sabino Arana Fundazioan.

Eugenio Ibarzabalek Toti Martínez de Lezea idazlea, Juan M^a Ollora, Arabako ahaldun nagusi ohia, eta Román Sudupe, Gipuzkoako ahaldun nagusi ohia, izan zituen lagun aurkezpenean. Aurkeztutako lanean, Ibarzabalek bere bizipenak eta trantsizio-aldian Euskadin izandako mugarrak jorratu ditu, baita euskal abertzaletasunaren XX. mendeko historia ere, orduko pertsona ospetsu askori egindako elkarrizketen argitan. Andoni Ortuzar, Euzkadi Buru Batzarreko presidentea, ekitaldian izan zen.



4.11-4.12. Hitzaldi-zikloa: 1917-2017. Mende bateko uzta – Modelo propio, proyecto de país, utopía transformadora

Gertakizun gogoangarri batzuk ardatz hartuta, besteak beste, abertzaleen lehen garaipena Bizkaiko Aldundia gobernatzeko hauteskundeetan, 1917an, Hermes aldizkariaren –abertzaletasunaren ikuspegitik, aire berriak eta anitzak ekarri zituen kultura-argitalpena– sorrera urte horretan bertan eta erakunde esanguratsu batzuen (Eusko Ikaskuntza, Euskaltzaindia eta Euskal Kulturaren Batza) sorrera garai hartan, bi hitzaldi antolatu genituen gai horiek guztiak jorratzeko. UPV-EHUko katedradun Joseba Agirreazkuenaga (ekainaren 1ean), eta EAJ-PNV alderdiaren EBBko presidente Andoni Ortuzar (ekainaren 7an).



Autogobernuaren birformulazio politikoa eta kulturala: Estatutismoa eta euskal estatua (1917-1919). UPV-EHUko Historia Garaikideko katedradun Joseba Agirreazkuenagaren eskutik.

Ekainaren 1ean, Joseba Agirreazkuenagak, “Euskal agintaritza politiko eta kulturalaren egituraketa: Unibertsitatea eta gobernu (1917-1919)” izeneko hitzaldian, Ramón de la Sota buru zeukan Bizkaiko Diputazio hark egindako lana nabarmendu zuen.



EAJ-PNV: euskal aberriaren sustrai eta kimu, EAJ-PNV alderdiaren EBBko buruaren eskutik.



Ekainaren 7an, “EAJ-PNV: euskal aberriaren sustrai eta kimu” izenburuaren ildotik, Andoni Ortuzarrek gogorarazi zuen De la Sotaren agintaldiak “mugarria ezarri zuela lurraldeko bizimoduan eta haren erakundetzean.

Agintaldi horren baitako emaitzak ditugu Euskaltzaindia, Bizkaiko auzo-eskolak edo euskararen erabilera hizkuntza ofizial gisa. 1917ko kimu hartatik adar sendoak jaio ziren eta, samintasunak samintasun eta 40 urteko diktadura pairatuagatik ere, adarrok iraun, hazi eta oraindik ere hosto eta fruitu ugari eman behar dizkiote herrialde honi”.

EAJ-PNV alderdiaren iragan arrakastatsuan parte hartu duten guztiei gorazarre egin ostean –izan ere, horien guztien ekarpenik barik, alderdiak ez luke horren osasun beterik izango– EAJ-PNV alderdiaren EBBko presidenteak azpimarratu zuen “euskal herriarekiko maitasunak, komunitatearentzako zerbitzuak, onestasunak eta alderdiaren izaera irekiak bermatzen dutela EAJ-PNV alderdiaren iraunkortasuna”.



4.13-4.14. Hitzaldi-zikloa: “Uztailaren 18tik Santoñara”

Uztailaren 18tik Santoñara (1936-1937) izenburu orokorraren ildotik, Sabino Arana Fundazioak eta Helduak elkarteak hitzaldi-sorta antolatu zuten Euzko Alderdi Jeltzaleak Gerra Zibilean hartutako bi erabaki eztabaidagarriren inguruan aritzeko: EAJren jarrera gerraren hasieran eta Juan de Ajuriagerrak Italiako militarrekin adostutako Santoñako hitzarmena deitutakoa.

Egun eskura daukagun bibliografia eta gaurdaino argitaratu ez diren agiri ugari zehatz-mehatz aztertuta, Roman Berriozabalek, Iñaki Anasagastik eta Koldo San Sebastiánek orduko gertaeren inguruko ikuspegi egiaztatu eta zorrotza eskaini ziguten. Azaroaren 2an, EAJ-PNV alderdiaren



historia Araban Gerra Zibilean izeneko lana argitaratu zuen Berriozabalek iturri hemerografiko, agiri eta ahozko lekukotasun berrietan funtsatuta, eta 1936ko uztailleko militarren matxinadaren osteko ordu kritikoetan jeltzaleek hartutako erabakien arrazoiak argitu zizkigun. Hitzaldiaren izenburua honakoa izan zen: “EAJ eta Gerra Zibilaren eztanda”.

Beste alde batetik, Anasagastik, Santoñako beste hitzarmena izeneko liburuaren egileetako batek –hori ere orain arte ezezagunak ziren agiritan oinarriturik landutakoa– Santoñan 1937ko abuztuaren amaiera aldera jazo ziren gertakizunen

inguruko ikuspegia azaldu zigun, orain arte argitaratutako historiografiaren bidea argitaratu denaz bestekoa.



EXPO

4.15. “Prentsa eta Gerra”

Euskadiko Agiritegi Historikoarekin eta Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politikako Sailarekin lankidetzan, azaroaren 27an, ‘Prentsa eta Gerra’ izeneko mintegia antolatu genuen aipatutako agiritegiaren egoitzan. Koldo San Sebastián kazetari eta historialariak eta Euskal Herriko Unibertsitateko irakasle Josu Chuecak XX. mendearen lehen hereneko euskal prentsaren egoeraz jardun zuten. Hitzaldiez gain, Sabino Arana Fundazioak koordinatutako erakusketa ikusteko aukera izan zen agiritegian. Bertan, saio hartako hedabideen bilakaerari buruzko agiriak jarri ziren ikusgai.



5.1. Tailer didaktikoak eta ahozko historiari buruzkoak

Gazteak gure gizartearen eta gure herriaren etorkizuna dira. Horregatik, ahaleginak eta bi egin behar ditugu egunetik egunera gizarte demokratikoa eratzeko, bakearen eta elkarrizketaren kultura lantzeko asmoz; jakintzaren gizarte globalizatua eratu behar dugu, pertsonak aldeztan dituen; azken batean, elkartasunari heltzen dion euskal gizarte aurreratua eratu behar dugu.

Oinarri horietatik abiatuta, Sabino Arana Fundazioak eduki daukan helburu nagusietako bat gure neska-mutlak eta gazteak balioetan hezte da, etorkizunean gaitasun kritikoa garatzeko, elkartasunari eta giza eskubideei gogotik eusteko eta desberdintasun orori aurre egiteko, besteak beste, genero desberdintasunari aurre egiteko, elkartasunean oinarritutako balioak erabili eta behetik gora eraikitako gizartean sinets dezaten.

Horregatik, 2017ko ekitaldian, hainbat tailer antolatu ditugu, Arte plastikoak, Literatura eta abar Historia eta Oroimen historikoarekin, euskararekin edo euskal kulturarekin uztartzeko. Egungo molde didaktikoak erabiliz, aniztasunari eta eskolako ume-gazteen beharrezkoen errepasurik, kurrikulua aberasteko balioko dieten jardura jakingarri batzuetan aritu dira ikasleak. 8-16 urteko neska-mutilek parte hartu dute ondoko tailerretan:



ARTEA-ZIENTZIA-TEKNOLOGIA-BERRIKUNTZA

Martxoaren 22an eta 29an, Artxandape ikastolako 10 eta 11 urteko bi ikastaldek ganbera estenoekoaren saiakuntza egin zuten, hau da, argazkiak ateratzeko teknikarik bakunena ikasi zuten.

Tailerraren lehen saioan, martxoaren 22an, ikasleek

argazki-kamera bat egin zuten kartoizko kutxa bat, aluminiozko papera eta beste gai batzuk erabiliz, eta teknikaren printzipioak ikasi zituzten.

Tailerraren bigarren saioan, martxoaren 29an, Artxandape ikastolako ikasleek saiakuntza egin zuten eta



argazkiak atera zituzten. Geroago, gela berezi batean errebelatu zituzten.

Beste lau ikastalde aritu abenduaren 20an, lau tailerretan.

Idazten eta amets egiten Nurren amamarekin

Apirilaren 24an, Bilboko Artxandape ikastolako beste bi ume-taldek parte hartu zuten Toti Martínez de Lezea idazleak emandako ikastaro batean, irakurzaletasuna gazteen artean sustatzeko asmoz. Horretarako, *Nur*, umeentzako liburu-saila baliatu zuen idazleak. Nur Totiren iloba da eta Txinan bizi da. Eleberri horiek baliaturik, Totik ikasleen adin bereko umeek bizi dituzten istorioak kontatzen dizkie eta galderak egiten dizkie parte har dezaten.



Bilbo eraikitzen - Construyendo Bilbao



Uztailaren 1ean, Artxandape ikastolako Lehen Hezkuntzako lehen mailako (6 urte) bi ikasle-taldek “Bilbo eraikitzen-construyendo Bilbao” izeneko tailerrean parte hartu zuten. Bilboko atzoko eta gaurko argazki eta marrazki esanguratsuak (San Anton eliza, udaletxea, Iberdrola eraikina neska-mutikoei sormenari eragin zioten margolaritza lantzen, eta “nork bere Bilbo” eraiki zuen. Jarduera honen bidez, sormena sustatzeaz gain, neska mutilek atzoko eta gaurko Bilbo ezagutu eta hiriaz goza dezakete.

Historia: ezagutu eraldatzeko

Euskadin emandako aldia baliatuta, Valentziako ASES ikastegiko 16-17 urteko 34 ikaslek eta 6 irakaslek parte hartu zuten “Historia: ezagutu eraldatzeko” izeneko tailerrean.

Berangoko Burdin Hesiaren Interpretazio Guneko zuzendari Aitor Miñambresen eskutik, Valentziako ikastegi horretako ikasle-irakasleek Euskadin izandako Gerra Zibilaren amaiera ekarri zuen gertakarietako bat



aztertu dute, hain zuzen ere, Bilboko Burdin Hesiaren galera. Horren ostean, matxinatuek Bizkaiko hiriburua okupatu zuten.

Sarrera laburra egin ondoren, ikasleek dokumentala ikusi dute. Dokumentalean, ikasleen adin bereko gazte bat da protagonista eta ikertzaile-talde bat ikus daiteke Gerra Zibileko gotorleku batean, protagonista gaztea lagun duela. Dokumentala ikusi ostean, ASES ikastegiko ikasleek zalantzak argitzeko aukera izan zuten dokumentaleko protagonistetako bati galdetuta, hain zuzen ere, gudarien buruzagiari (Aitor Miñambres). Gainera, atrezzo elementuak eta egun horietan arruntean erabiltzen ziren gauzak ikusi eta ukitu ahal izan zituzten, Sabino Arana Fundazioan gordeta baitaude.



Astebe geroago, martxoaren 21ean, hain zuzen, lurretako Orobiogoitia BHIko 17-18 urteko bi ikastaldek (40 lagun) bertatik bertara ezagutu dute Gerra Zibilaren amaierako gertakari esanguratsu bat Euskadin, hain zuzen ere, Bilboko Burdin Hesiaren galera.

Mota horretako tailerren xede nagusia dugu oroimen historikoaren kontzeptua lantzea, ikasleei gure historiako orain dela gutxiko gertakariak eskainita, batetik, gure iraganaren inguruko jakintzan sakontzeko, eta bestetik, gogoan hartu eta etorkizunean akats berdinak ez giteko.

Museoen Nazioarteko Eguna. “Guernica” margolanaren koloreak era eztabaidagarrian berrinterpretatuz



Maiatzaren 18an, Museoen Nazioarteko Egunean “Guernica” margolana hautatu zuen Euskal Abertzaletasunaren Museoak egun horretan egindako tailerren gai nagusi. Artxandape Ikastolako Lehen Hezkuntzako lehen mailako bi ikastaldek (guztira, 50 ikasle baino gehiagok) parte hartu zuten tailerrean.

Hala, tailerretan parte hartzen duten neska-mutil guztiek olioaren zati bat aukeratu zuten eta mihise batean irudikatuzuten. Ikasleek lana amaitutakoan, zati guztiak batu eta kolorez betetako “osotasuna” sortu zuten. Bada, “Guernica” haiek ulertutako eran.

ICOM (Museoen Nazioarteko Kontseilua) erakundeak “Istorio eztabaidagarriak: ezin esan daitekeena esatea museoetan” leloa aukeratu du aurten eta, horri loturik, helburu nagusia izan zen museoek izan dezaketen eginkizuna aztertzea, herrien arteko harreman baketsu(ago)ak eratzeko tresna diren heinean. Horren haritik, Euskal Abertzaletasunaren Museoak aukeratutako “Guernica” margolana gai hobezina da.



Mende berriko eskola: kulturartekotasuna (Antton Irusta)

Gabonak etorri orduko, teknologia berriek atzean uzten ari diren tradizio bati eutsi nahi izan diogu. Horrela, Artxandape ikastolako DBHko 3. eta 4. mailako lau ikasle-taldek “Mende berriko eskola: kulturartekotasuna” izeneko tailerrean parte hartu zuten. Antton Irusta filologo, ipuin-kontalari eta euskal idazleak eman zuen tailerra. Bertan, lur honetako kultura-balioak goraiatzeko dira eta, era berean, euskal herritarron gaitasuna gure izaerari eusteko mundu globalizatu honen barruan, betiere tradizioei eutsita.

Irustaren eskutik, Artxandape ikastolako gazteek Gabonetako txartelak egin zituzten, betiko eran egin ere. Eta benetako “harribitxi” horiek, segurutik Gabon aldiari erabiliko zituzten senide eta lagun maiteei oparitzeko, bihotz-bihotzez. Horretarako, Sabino Arana Fundazioan gordetako txartelak erabili genituen eredutzat, frankisten kartzeletan preso egondakoen senideek dohaintzan emandakoak.



6.1. “Euskarak tokia hartu ahal izateko hizkuntza politikaz”



Euskaltzaindiaren eta Sabino Arana Fundazioaren ekimenez, Euskal Autonomia Erkidegoko, Nafarroako eta Ipar Euskal Herriko hizkuntza-politikako arduradun nagusiak aurretiaz inoiz egin ez den mintegi batean batu ziren ekainaren 14an Fundazioaren egoitzan, Euskal Herrian arlo horretan garatzen ari diren proiektuei eta etorkizunean gara litezkeen lan-ildoei buruzko iritziak trukatzeko xedez

Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuak, Bingen Zupiriak, Andres Urrutia euskaltzainburuak eta Sabino Arana Fundazioko lehendakariak, Juan M^a Atutxak jardun dute “Euskarak tokia hartu ahal izateko hizkuntza politikaz” izenburua izan zuen mintegi horren hasiera-ekitaldian.

Ekitaldiaren hasieran, Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuak honakoa adierazi zuen: “ziurrenik inoizko baldintzarik onenak ditugu euskara era eraginkorrean sustatzeko. Azken hamarkadotan egindako lan onaren ondorioz, ezagutza asko hazi da eta hizkuntzaren erabilera ere areagotu da; gizartearen euskararekiko jarrera inoiz baino hobea da eta, indarkeria amaitu zenez geroztik, testuinguru politikoa ere askozaz errazagoa da. Erronka handiak ditugu, zailtasunak badaude, baina aukera handiak ere badaude”.



Juan M^a Atutxak adierazi zuenez, “asmo komun batek biltzen gaitu: lankidetzaz; elkarlanerako asmoa, elkarlanerako gogoia, elkarlanerako bidea. Testuinguru soziopolitikoak aukera ezin hobea eskaini digu; jauzi kualitatibo bat emateko aukera. Balia dezagun aukera hori”.

Era berean, Sabino Arana Fundazioko lehendakariak honakoa esan zuen baikortasunez: “azken berrogei urte hauetan, aurrerapauso nabariak eman ditugu. Botila ez dago erdi hutsik; botila erdi beteta dago; eta ez daukat zalantza izpirik ere, bide honetatik jarraitzen badugu, hau da, elkarlanaren bidetik jarraitzen badugu, botila, astiro bada ere, betetzen joango da”.

Beste alde batetik, euskaltzainburuak irmotasunez adierazi zuen “hizkuntza politika beharrezkoa duela euskarak; ez, ordea, hizkuntzarekin politika egitea”.

Horren ondotik, Miren Dobaranek, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikako sailburuordeak, euskal gobernuaren azken legegintzaldiko helburuak eta lan-ildoak aurkeztu zituen hizkuntza-politikaren arloan. Eta ondoko eztabaida-saioa Euskaltzaindiko idazkariordeak, Erramun Osak, moderatu zuen.



Hurrengo lan-mahaian, Mikel Arregik, Nafarroako Gobernuako Euskarabidea Euskararen Nafar Institutuko zuzendariak, Nafarroako Gobernuak onartu duen Lehen Euskararen Plan Estrategikoaren (2016-2019) helburuak eta lan-ildoak aletu zituen. Andrés Iñigo euskaltzain eta Euskaltzaindiaren Nafarroako ordezkariak eztabaida-saioa moderatu zuen.

Hirugarren lan-mahaian, Jean-Baptiste Battittu Coyos euskaltzainak eta Jagon saileko buruak jardun zuen moderatzaile eta, bertan, Beñat Arrabit, Euskal Elkargoko hizkuntza-politikako arduraduna eta Mathieu Bergé, Euskararen Erakunde Publikoko zuzendaria, aritu ziren. Bi erakunde horiek Iparraldekoak dira.

Geroago, Estibalitz Alkortak, Eusko Jaurlaritzako Euskara Sustatzeko zuzendariak, eta Jasone Mendizabalek, Euskaltzaleen Topaguneko zuzendariak, “Euskarak 365 egun. Hizkuntza-ohiturak eta gizarte-aktibazioa Euskal Herrian” deritzon ekimenaren nondik norako nagusiak aurkeztu zituzten. Uztarri Fundazioko presidente eta itzultzaile Gotzon Loberak moderatu zuen ondoko eztabaida-saioa.

Azken lan-mahaian, herri-erakundeen arteko lankidetzaz-aurerak jorratu ziren. Eztabaida horretan, Josune Zabalak, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Ikerketa eta Koordinaziorako zuzendariak; Mikel Arregik, Beñat Arrabitek eta Mathieu Bergék parte hartu zuten. Mahai horretan, Onda Vasca irratiko kazetari Itsaso Güemesek jardun zuen moderatzaile.



6.2. “Ramón de la Sota eta bere euskal programa abertzalea gobernatzeko: mendeurrena (1917-2017)”

“Ramón de la Sota eta bere euskal programa abertzalea gobernatzeko: mendeurrena (1917-2017)” izenburuko jardunaldia antolatu zuen Sabino Arana Fundazioak abenduaren 18an. Bertan, euskal abertzaletasunaren hastapenetako bultzatzaile nagusietako baten ibilbidea jorratu zen. De la Sota Bizkaiko aldundiko burua izan zen orain dela mende bat EAJren ordezkartzan, Euskal Kultur Batzaren sortzaileetako bat izan zen —Euskaltzaindia horren babesean sortu zen—, eta hainbat kultura-ekimen bultzatu zituen, hala nola Bilboko Orkestra Sinfonikoa edo Arkeologia Museoa.

“Ramón de la Sota eta bere euskal programa abertzalea gobernatzeko: mendeurrena (1917-2017)” izenburua izan zuen jardunaldi horretan, ondokoek parte hartu zuten: Gotzon Lobera, zinpeko itzultzailea eta Uztarri Fundazioko burua; Eba Gaminde, Zuzenbideko doktorea eta Merkataritza Zuzenbideko irakaslea Deustuko Unibertsitatean; Santiago Larrazabal, Zuzenbideko doktorea eta Konstituzio Zuzenbideko irakaslea Deustuko Unibertsitatean; eta Andres Urrutia, euskaltzainburua.

Politikaren ikuspegitik, EAJ alderdiari lotutako De la Sota Aburto bere biziaroari aurreratu zitzaion. Hitzaldian, pertsona esanguratsu horren giltzarri batzuk aletu ziren eta hizlarien esanetan, “Bizkaiko aldundiaren aginte-maikila hartu zuenetik mende betea joan den arren, De la Sotaren ideietako batzuek indarrean dira, hala nola, euskal herrialde guztiak batzea administrazio-zoru erkidearen menpean edo herriaren ongizatea jartzea ideologien aurretik. Berrogeita hamar lagunek baino gehiagok parte hartu zuten “abertzaletasunaren buruzagi eredugarriaren baten garrantzi politiko, sozial eta kulturaren” berri emateko antolatutako mintegi horretan.



Gotzon Loberak, itzultzaileak eta Deustuko Unibertsitateko eszedentziako irakasleak, eusko jeltzaletasunaren eragina eta Bizkaia-arentzat egindako proposamena azaldu zituen; Eba Gamindek –DUko Merkataritza Zuzenbideko irakasleak–, berriz, De la Sotaren programan ekonomiak eta gizarteak izan zuten garrantzia jorratu zuen. Bestetik, Santiago Larrazabalek, Konstituzio Zuzenbideko irakasleak, foruez, berrezarpenaz eta konstituzionalismo posibilistaz jardun zuen.

Amaitzeko, Andrés Urrutia euskaltzainburua euskal hizkuntzari eta kulturari egindako ekarpenez aritu zen.

7

EUSKAL ABERTZALETASUNAREN AGIRITEGIA

7.1 Agiritegiak egindako lanak

Retanaren *La Gran Enciclopedia Vasca* argitaletxearen agiritegia osatutako funtsen antolaketa eta deskribapena.

- Loiola Irratiaren funtsa antolatzeke lehen aldia: sail zehatzak eta argienak sailkatzea, antolatzea eta birkokatzea, eta Santurtziko EAJ-PNV alderdiaren Udal Batzaren agiritegia deskribatzen hastea.
- 359 fitxa erregistratzea, hainbat dohaintzetatik etorritako funtsen agiri-deskribapena osatzeko. Aurten, besteak beste, ondokoak aipatu behar dira: Mundakako Euzko Gaztediren agiritegia, Jose Zinkunegi Arruti eta Ander Arzelus *Luzear*-ren agiriak edo Iñaki Anasagastik, EAJ-PNV alderdiaren EBBk, Martín Olariagak edo María Joxepa Muñoak emandako funtsak.
- Ikus-entzunezkoei lotutako 44 fitxa erregistratzea (VHS formatuko bideoak, CD eta DVD euskarriak).
- Enkarterriko gudarien datutegia sortzea. Datutegi horrek **14.168** erregistrotik gora dauzka, eremu horretako gudariak osatutako batailoien hamaika nomina digitalizatuta aztertuta eta batailoietako partaideen (izen-abizenak, kargua, konpainia...) nahiz biktimen (eskualdean hildakoak edo gerran hildako Enkarterriko auzokideak) datuak aztertuta; irizpideak egiaztatzea, zuzentzea eta bateratzea. Bestetik, Italiako agiritegiek gordetako ehunka irudi ikertzea —argazkiak, planoak eta agiriak—.

7.2 Liburutegiko funtsak

Aurten, 563 lan berri erregistratu dira. 2016ko abenduaren 31n, **43.800** monografiak osatzen dute Euskal Abertzaletasunaren Agiritegiko liburutegia. Horietatik guztietatik, **32.380** lan Bilboko instalazioetan gordeta daude eta gainerakoak, **11.420** lan, hain zuzen ere, Arteako biltegian gordeta daude.

Orain dela urte batzuk hartutako erabakiari jarraiki, Bilboko biltegian ale bakarra gordetzen da lan bakoitzeko, betiere gaia eta edukiak bat badatoz gure liburutegi espezializatuan gordetzeko ezarri ditugun irizpideekin. Gainerako lanak, oro har, Arteako liburutegira eramaten dira (baliozkotzat jotzen dira gordetzeko helburuz, bikoiztuta egon arren); bestela, beste toki batzuetara bidaltzen dira (Gaintzaren bitartez).

2017ko ekitaldian, kopuruari begiratuta, ondokoek egindako dohaintzak nabarmendu behar ditugu: Miren Babio (Retanaren alarguna, *La Gran Enciclopedia Vascak* argitaratutako lanak), Bilbao 700 Fundazioa, María Joxepa Muñoa (Bidasoa taldea), Jon Zinkunegi, Joseba Verdes edo EBBko agintariak, besteak beste.

7.3 Uzturre hemeroteka

Urte osoan zehar jaso diren aldizkako argitalpenen aleak erregistratzen eta katalogatzen jardun dugu. Ale guztiak sailkatu, antolatu, eta bana-banaka egiaztatu ostean (behin baino gehiagotan ageri ote diren jakiteko) guztira, **38** titulu (eta **1.300** ale baino gehiago) erantsi zaizkio hemerotekari 2017an. UZTURRE hemerotekako biltegiak 500 metro linealetik gorako edukiera dauka eta, dagoeneko, **7.043** titulu eta **182.253** ale gordetzen dira bertan.

Beste alde batetik, Hustuketa izeneko datutegian (hainbat argitalpenetan, besteak beste, *Euzkadi, Alderdi, Hermes Deia, Muga, JEL, Historia Contemporánea* eta abarretan informazio historikoari buruz argitaratutako artikuluak jasotzen dituen) **11.495** erregistro jasota daude.

7.4 WEB zabalkundea

Ekitaldi osoan lortutako datuak –aurreko ataletan aipatu ditugunak– (agiriaren deskribapena), Sabino Arana Fundazioaren webgunean txertaturik dagoen datutegi bateratu batean sartzen dira aldiro-aldiro. Horrela, gure biltegietan gordeta dauden liburu, aldizkari eta egunkariei buruzko informazioa eguneratzen da eta, aldi berean, euskaldunon historiari buruz argitaratzen diren artikuluak jasotzen dira.

7.5 Kontsultak

2017ko ekitaldian, informazioa emateko **362** eskaera jaso dira Euskal Abertzaletasunaren Agiritegian (iazko ekitaldian baino ia-ia % 10 gehiago), gehienbat, e-postaz (**143**) eta telefono bidez (**115**). Bestetik, esan beharra dago gero eta kontsulta gutxiago egiten dela agiritegian bertan, (**61**), hitzordurik hartu barik, edo webgunean dauden inprimakiak erabiliz (**39**). Bitxikeria moduan, esan dezagun aurten bi kontsulta jaso direla posta arrunt bidez eta beste bi WhatsApp bidez.

Oroimen Historikoaren inguruko informazio-eskaerak nagusi dira: gerraren, erbestealdiaren edo norbanakoaren (gudariak, presoak, desagertuak eta abar) ingurukoak. Aipatutako enpresarietako, erakundeetako, hedabideetako zein komunikazio-enpresek egin ohi dituzte eskaerak, informazioa ikerlan, urtemuga, proiektu, lan zehatz eta abarretan erabiltzeko.

Agiritegian urtero-urtero jasotzen diren kontsultei dagokienez, esan beharra dago informazioa kontsultatzeko eskaera egin eta gure erantzunean hartutako datuak aztertu ondoren, agiritegiari jatorrizko agiriak ikusten datozenak ere zenbatzen direla. Aretoko erabiltzaile horien –ikertzaileak, erakundeetako ordezkariak, irakasleak, ikasleak eta/edo norbanakoak– izen-abizenak eta ikergaia jasotzen dira ikertzaileei eskainitako oroitzapenaren azken atalean. Ikergaien zerrenda, argi denez, urtean izandako kontsulten erakusgarri eta laburpena da.

Jasotako kontsulten banakaketa			
Norbanakoak	198	EAJ eta SAF	50
Unibertsitatea / Ikerkuntza	27	Enpresak / Ekoiztetxeak	10
Gizarte- eta Kultura-erakundeak / Administrazioa	55	Hedabideak (Deia...)	22

1992ko urritik hona, **5.459** kontsulta jaso dira guztira agiritegian.

7.6 Historia eta dokumentazioari buruzko aholkularitza: lankidetzak, solasaldiak, hitzaldiak, jardunaldietako parte-hartzea...

- DEIA egunkariarentzako artikulak: *Historias de los Vascos* atala. 51 erreportaje argitaratu dira.
- Enkarterriko museoa: gudarien datutegia, erakusketa, monografia –kapitulua idaztea eta dokumentala–.
- Euskadiko Agiritegi Historikoa: Bilboko galerari buruzko erakusketa.
- Bilboko Udala: EGUNA egunkariaren 80. urteurrena (enarak).
- Aterpe: ekitaldia Artxandan.

Argitalpen-kontrola

- Román Berriozabal: “Arabako EAJ-PNV alderdiaren historia Gerra Zibilean”.
- Gregorio Arrien: “Hezkuntza eta Bizkaiko auzo-eskolak”

7.7 Parte-hartzea hitzaldi, jardunaldi eta hedabideetan

25 parte-hartze zenbatu dira 2017an.

7.8 Norbanakoen dohaintzak

2016ko ekitaldiaren barruan, **56** pertsonak edo erakundek egin dituzte dohaintzak Euskal Abertzaletasunaren Agiritegian. Aipatutako ekitaldian **26** emaile berri izan dira eta, guztietan, azpimarratzekoa izan da UDALBIDE (euskal udalen elkarte) erakundearen agiritegia jaso eta Artean paratu izana. Hala, 2017ko abenduaren 31ra arte, **1.490** dohaintza jaso dira.

7.9 Ikertzaileak

2017an, **68** ikertzailek aztertu dituzte gure agiri-funtsak agiritegian bertan.

8.1 Urteko balantzea

2017ko ekitaldian ere, Sabino Arana Fundazioaren Euskal Abertzaletasunaren Museoak gertaera historikoetan parte hartu zuten pertsonen ahozko lekukotasunak jaso ditu, horien guztien kontakizuna funtsezkoa baita gure benetako para historia berreskuratzen joateko.

Beste alde batetik, Museoaren gainerako jarduerak bazter utzi gabe, gogotik jardun dugu argazki-funtsa katalogatzen, dekorazio-artearen eta arte grafikoen funtsak berrantolatzen eta dohaintza berriak erregistratzen, inbentarioan sartzen eta katalogoan jasotzen.

Aurreko urteetan bezala, UPV/EHUko Gizarte Zientzien eta Komunikazio fakultateetako hamabost ikasle baino gehiago izan ditugu gurean; bai eta Letren eta Arte Ederren fakultatekoak ere. Horiek guztiek 2.350 ordu baino gehiago eman dute funtsotako irudien digitalizazioa, deskribapen teknikoa eta tratamendua gauzatzeko.

Azkenik, behean ageri diren funtsak antolatzen, inbentarioan sartzen eta katalogoan jasotzen jarraitu dugu lanean:

Argazki-funtsa: 2016an jasotako 2.300 argazki baino gehiago erregistratu, katalogatu eta "Sabino Arana Fundazioa" deritzon molde txertatu diegu irudiei:

- Norbanakoek egindako dohaintzen funtsetan gordetako argazkiak erregistratzea, katalogatzea, digitalizatzea eta irudiei molde txertatzea.
- Erregistratutako irudien deskribapen fisikoa egitea eta kontrastea hobetzea.
- Identifikatzaile, egungo egoera, kopien kopuru eta beste ezaugarri batzuk inbentarioan jasotzea.
- Irudiak indexatzea, zeini dagokion testu-fitxaren arabera.
- Tamaina, egungo egoera eta abarren arabera, irudiak euskarri egokietan jartzea, argazki-albumetan gordeta eta hainbat tamainatako zorroetan –pH neutrodunak eta argazkiari egokitutakoak– sartuta.

Arte Grafikoa | Kartelen Atala: eranskailuen bildumarekin egin bezala, inbentarioa lantzen jarraitu dugu, sarrera berriak txertatu dira eta horiek erregistratu, argazki digitalak erabiliz.

Atal honetan, Komunikazio Fakultateko praktiketako ikasleek jardun dute lanean. Guztira, 700 erregistrotik gora jaso dituzte inbentarioan aipatutako ikasleek.

Arte Grafikoak | Eranskailuen Atala: erregistro berriak katalogatzen jarraitu dugu, Arte Ederren eta Letren fakultateetako ikasleek egindako lanari esker. Horrela, 1.200 erregistrotik gora katalogatu eta jaso ditugu inbentarioan.

Dekorazio Arteak: 1.050 objektu baino gehiago berrantolatu eta berriro kokatu ditugu. Arte Ederren eta Historia fakultateetako praktiketako ikasleek jardun dute zeregin horietan. Gainera, gai berriak erregistratu eta katalogatu dira.

Ehun-funtsa: 2017ko ekitaldiaren barruan, gure erakundera heldu diren ale berriak (100 baino gehiago) aztertu, inbentarioan jaso eta katalogatu dira. Dagoeneko deskribatuta eta inbentarioan jasota dauden funtsei dagokienez, esan behar da, 2017ko ekitaldian, Euskal Abertzaletasunaren Museoak 300 bat kontsultari erantzun diela eta argazki-funtsean jasotako 450 irudi baino gehiago baliatu direla Facebook eta Instagram sare sozialetan eta DEIA egunkariak jorratzen duen "Historias de los vascos" sailean argitaratzeko.

Gaur egun, lanean dihardugu 2017an jasotako dohaintza esanguratsuak inbentarioan jasotzen eta euskarri egokietan paratzen. Ildo horretan, nabarmendu behar dira funts guztietan (argazki-funtsa, ehun-funtsa, dekorazio-artearen funtsa...) jasotako gaiak.

Aldi baterako erakusketei gagozkiela, 350 elementu baino gehiago laga ditugu gai askotariko erakusketetan ipintzeko, hainbat erakunderekin elkarlanean:

- **Gipuzkoako Foru Aldundia**, "*Saseta Batailoari Omenaldia*" izeneko erakusketan.
- **Euskadiko Agiritegi Historikoa**, "*Bilboren erorketa, lehen planoan*" izeneko erakusketan.
- **Bizkaikoa**, "*Berriro inoiz ez, gerrako irudiak*" izeneko erakusketan.
- **Bizkaiko Batzar Nagusiak**, "*Enkarterri 1937. Gerra Zibilaren azken hilabeteak Euskadin*" izeneko erakusketan.
- **Bilboko Arte Ederren Museoa**, "*Aurelio Arteta. Irakuri Léase Euzkadi*" izeneko erakusketan.
- **Conflict Textile, Linen Hall Library, INNATE, CAIN/Ulster University**, "*War-Torn Children. Niñ@s desgarrad@s por la guerra*" izeneko erakusketan.

Bestetik, hainbat pieza laga dizkiegu ondoko museo eta erakundeei:

- **Gernikako Bakearen Museoa Fundazioa**
- **Euskal Poliziaren Museoa**
- **Museo de l' Exili**
- **Eusko Legebiltzarra**

Beste alde batetik, 2017ko ekitaldian, gure eskaintza didaktikoa handitu da eta zortzi motatako tailer didaktikoak antolatu ditugu, batetik, Museoen Egunaren leloa joratzeko, bestetik, sormena lantzeko eta, azkenik, oroimen historikoa berreskuratzeko. Tailerren hartzaileak adin askotako ikasleak izan dira.

8.2 Kontsultak eta lankidetzak

2017ko ekitaldian, Euskal Abertzaletasunaren Museoak 300 kontsulta baino gehiago jaso ditu eta 2.100etik gora irudi igorri dizkie ondoko guztiei.

- a) Hedabideak: *DEIA; EITB; El Correo; El diario Norte; Eusko Lurra; La Sexta TV; Mugalari aldizkaria...*
- b) Erakundeak: *Euskadiko Agiritegi Historikoa; Erraketisten elkarteak; Athletic Club; Amurrio, Bilbo, Eibar, Elorrio, Erandio, Ereño, Galdakao, Igorre eta Mundakako udalak; Bilbao 700; CIHMA; Diputatuen Kongresua; Gipuzkoako Foru Aldundia; Enkarterri; Limako Euzko Etxea; Mario Onaindia Fundazioa; Galdakaoko Gogora elkarteak; Gerediaga Elkartea; Eusko Jaurlaritza; Bruselako ordezkariak; Gernikako Bakearen Museoa Fundazioa; Gogora; Gorbeialde; Bizkaiko Batzar Nagusiak; BOS; Bilboko Arte Ederren Museoa; Enkarterriko Museoa; Gernikako Turismo Bulegoa; Orbela; Eusko Legebiltzarra; Euzko Alderdi Jeltzalea; Segurako antzokia; Txakolingunea; Deustuko Unibertsitatea; Euskal Herriko Unibertsitatea...*
- c) Argitaletxeak: *Pamiela; Prensa Ibérica; Santillana...*
- d) Ekoiztetxeak: *Baleuko; NHK Motoko; Pacay Kulturmedia; Productora Manuel Campo Vidal...*
- e) Ikertzaileak eta norbanakoak.

8.3 Tailer didaktikoak

**HISTORIA: EZAGUTU ERALDATZEKO
CONOCER PARA TRANSFORMAR**

Berangoko Burdin Hesiaren Interpretazio Gunearekin lankidetzan, gure herrialdean izandako 36ko Gerraren inguruko alderdi historikoak, sozialak, kulturalak... garatzen ditugu.

ARTEA, ZIENTZIA, TEKNOLOGIA, BERRIKUNTZA

ARTE, CIENCIA, TECNOLOGÍA, INNOVACIÓN

Tailer honetan, ganbera estenoekoaren saiakuntza garatzen da, hau da, argazkiak lortzeko teknika bakunena lantzen da. Tailerraren lehen saioan, batetik, neska-mutilek argazki-kamera egiten dute kartoizko kutxa bat, aluminiozko papera eta beste gai batzuk erabiliz eta, bestetik, aipatutako teknikaren printzipioak ikasten dituzte.

Bigarren saioan, ikasleek esperimientua burutzen, argazkiak ateratzen eta, azkenik, argazkiak errebelatzen dituzte berariazko areto batean.

IDAZTEA ETA AMETS EGITEA NURREN AMAMAREKIN

ESCRIBIR Y SOÑAR CON LA AMAMA DE NUR

Toti Martínez de Lezea idazlearen eskutik, tailer honen xedea irakurzaletasuna sustatzea da.

MUSEOEN EGUNA.

GUERNICA-REN KOLOREA BERRINTERPRETATZEN

Pablo Picassoren "Guernica" margolana baliatuz, historia, margolaritza eta marrazkigintza lantzen ditugu neska-mutikoekin.

BILBO ERAIKITZEN

CONSTRUYENDO BILBAO

Txikienentzat antolatutako tailer honen helburu nagusia da irudimena eta sormena piztea eta inguruneaz jabetzea.

MENDE BERRIKO ESKOLA: KULTURARTEKOTASUNA

LA ESCUELA DEL NUEVO SIGLO. MULTICULTURALIDAD

Antton Irusta filologo, ipuin-kontalari eta euskal idazlearen eskutik. 30eko hamarkadako irudiak eta ikurrak erabiliz, ikasleek Gabonetako postalak egiten dituzte eta, bide batez, oroimen historikoa lantzen dute.

8.4 Aldi baterako erakusketak eta maileguak

350 gauzaki eta material baino gehiago laga edo maileguan utzi ditugu ondoko erakusketetan erabiltzeko:

Gipuzkoako Foru Aldundia, *"Saseta Batailoari"* egindako omenaldian, 2017ko otsailaren 23an eta 24an.

Conflict Textile, Linen Hall Library, INNATE, CAIN/Ulster University *"War-Torn Children/Niños desgarrados por la guerra"* izeneko erakusketan. 2017ko martxoaren 1etik apirilaren 19ra Belfasteko (Ipar Irlanda) Linen Hall Library-n.

Amurrioko Udala, *Galindez* izeneko erakusketan. 2017ko apirilaren 1etik 30era, Amurrioko Bañueta kiroldegian.

Gernikako Euskal Herria Museoa, *"Xabier Saenz de Gorbeari omenaldia"* izeneko erakusketan. 2017ko apirilaren 24tik 2018ko urtarrilaren 21era, museoko aretoan.

Gipuzkoako Foru Aldundia eta Hondarribiko Udala, *"Kandido Saseta eta Saseta Batailoia. 80 urte"* izeneko erakusketan. 2017ko apirilaren 25etaik maiatzaren 14ra, Arma plazako Kultura eta Turismoko Informazio Bulegoan.

Erandioko Udala, *"Berrito inoiz ez. Gerrako irudiak"* izeneko erakusketan. 2017ko maiatzaren 22tik ekainaren 9ra, Erandioko Josu Murueta kulturgunean (Astrabudua).

Euskadiko Agiritegi Historikoa, *"Bilboren erorketa, lehen planoan"* izeneko erakusketan. 2017ko ekainaren 27tik abuztuaren 21era, agiritegian.

Enkarterriko Museoa eta Bizkaiko Batzar Nagusiak, *"Enkarterri 1937. Gerra Zibilaren azken hilabeteak Euskadin"*. 2017ko ekainaren 22tik 2018ko martxoaren 31ra, Enkarterriko museoan.

Mundakako Udala, *"Berrito inoiz ez. Gerrako irudiak"* izeneko erakusketan. 2017ko irailaren 5etik 22ra, Tribisarrospe kultura etxean.

Gueñesko Udala, *"Berrito inoiz ez. Gerrako irudiak"* izeneko erakusketan. 2017ko urriaren 7tik azaroaren 26ra, Arenatzarte parkeko kristalezko etxean.

Bilboko Arte Ederren Museoa, *"AURELIO ARTETA. IRAKURI-LÉASE EUZKADI"* izeneko erakusketan. 2017ko urriaren 10etik 2018ko otsailaren 20ra, museoko aretoetan.

Euskadiko Agiritegi Historikoa, "*Prentsa eta Gerra*" izeneko erakusketan. 2017ko azaroaren 22tik abenduaren 1era, agiritegiaren egoitzan.

Santurtziko Batzokiko Uri Buru Batzarra, "*Santurtziko Murrieta etorbideko batzokiaren 40. urteurrena*". 2017ko abenduaren 13tik 27ra, batzokiaren egoitzan.

> NORBANAKOEN DOHAINTZAK

2017ko ekitaldian, besteak beste, 2.400 pieza eta 400 irudi baino gehiago (horietako asko argitaratu gabekoak izan dira eta batzuk-batzuk negatiboan jaso ditugu; horregatik, positibizatu eta landu behar izan ditugu) eta Agirre lehendakarien jaraunsleek emandako oihalezko funts ugari jaso dira Euskal Abertzaletasunaren Museoan, hogeita hamar bat norbanakok eta erakundek egindako dohaintzei esker.

Sarien XXVIII. edizioan, Picassoren “Guernica” margolanak adierazten duen unibertso sinbolikoa eta kirol-, hezkuntza- eta enpresa-arloko pertsona nabarmenak izan ziren saridunak.

Urtarrilaren 29an, Sabino Arana Sarien XXVIII. edizioa izan zen Bilboko Arriaga antzokian. Sei saridun izan ziren ekitaldi horretan, Hika Teatroak Gernikako bonbardaketen antzezpen zirraragarria eskaini zuen, Hiroshima, Irak edo iheslarien zorigaitzaren gaineko aipamenak eginda, eta amaiera ederra eman zion ekitaldi hunkigarri horri.



Picassoren “Guernica” margolanaren unibertso sinbolikoaz gain –iraganeko izugarrikeriaren irudi eta bakearen egungo ikur bilakatuta–, Sabino Arana Fundazioak kirol-, hezkuntza- eta enpresa-arloko bost pertsonaren ibilbidea saritu zuen, honako hauena, hain zuzen ere: Pedro Luis Uriarte, Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Ogasun sailburu ohia; bizikletak fabrikatzen dituen Orbea enpresa; Egibide hezkuntza-gunea “Fundación Diocesanas-Jesús Obrero Fundazioa”; Matxalen Ziarsolo eskubaloijokalaria ohia; eta Tolosako Ekinbide Etxea.

Eusko Jaurlaritzako lehendakariak, Iñigo Urkullu jaunak buru jardun zuen ekitaldian eta Euskadiko politika, kultura eta gizarte esparruetako pertsona ospetsu ugari izan ziren bertan. Arantza Ruiz kazetariak aurkeztu zuen ekitaldia eta Aldamena Duo musika-taldeak (Nahikari Oloriz saxofoi-jotzaileak eta Itxaso Sainz de la Maza piano-jotzaileak osatutakoa) girotu zuen.

Sabino Arana Fundazioko lehendakari Juan M^a Atutxak hasiera eman zion ekitaldiari; saridun guztien ibilbidea laudatu zuen eta Gernikako bonbardaketaren 80. urteurrena ekarri zuen gogora, Gerra Zibileko heriotzaz eta txikizioz belztutako “garrasi lazgarri hura” “Berriro inoiz ez” gertatzeko aldarrikapen bilaka dadin eskatuz. Ez gaur, ezta bihar

ere; ez hemen, ez han; ez Aleppon, ez Mediterraneoko urtean, ezta iheslarien eremu izoztuetan ere”.

Fundazioak ordura arte sarituta zituen 159 pertsona-erakundeen zerrenda osatu zuten sei saridunen artean, TEE, Tolosako Ekinbide Etxea genuen “gure kulturaren enbaxadore delako eta Gipuzkoako herri hori munduko kultura-aniztasunaren topagune bihurtu dutelako”.

TEEko presidente Julián Lacunzak jaso zuen saria eta adierazi zuen Tolosako Ekinbide Etxeak “dagoeneko finkatuta dauden ekinak garatzen jarraituko dutela” hala nola Tolosako Abesbatza Lehiaketa edo Txotxongiloen Nazioarteko jaialdia (Titirijai). Era berean, asmoa agertu zuen “gazteak txertatzeko TEEren egiturari, horri eutsi eta aberastu dadin”.

Euskadiko Orbea enpresaren ordezkartzan, Jon Fernández zuzendari nagusia igo zen Arriagako agertokira eta sariagatik eskerrak eman zituen enpresaren historian parte hartu duten “milaka pertsonaren izenean”.

“Egunero-egunero merkatu globaletan lehiatzen gara marka-kopuru izugarriarekin, eta guztiok ere ahalegintzen gara erabiltzaileen arreta erakartzea” aitortu zuen zuzendariak eta geroago esan zuten “marka sendoa izatea, segurutik, enpresen balio ukiezin garrantzitsuena dela”. Ildo horretan, azpimarratu zuen Euskadiri “atxikirik gelditzean”, Orbeak balioa eman diela “euskal tradizio industrialari, bertako berrikuntza-ahalmenari eta eraldatzeko gaitasunari”.

Beste sari bat Gasteiza joan zen, hain zuzen ere, Egibiderentzat, ondoko alderdiak aitortuta: “Arabako hezkuntza-erakunde gisa izan duen ibilbidea, Lanbide Heziketaren arloan erakutsitako lidergoa eta herrialdeko gizarte- eta ekonomia-garapenari egindako ekarpena”.

Diocesanas-Jesús Obrero Fundazioaren Patronatuko presidenteak eta Gasteizko gotzainak, Juan Carlos Elizalde, eta Egibideko zuzendari nagusiak, José Ignacio Egizabalek, jaso zuten saria.

Elizalde nabarmendu zuen “Egibidek lagundu nahi duela gizaki bakoitzaren duintasun jainkotiarraz jabetu diren pertsonak hezi nahi dituela” eta balioetsi zuen “Egibide Elizaren ekimenez sortu zela, gure gazteen beharrazanez erantzuteko”.

“Barkamena eskatzen dugu, ez diogulako inoiz bete-bete erantzuten gure ardurapean utzi den eginkizunari. Barkamena eskatzen dugu beti ez dugulako lortzen Ebanjelioaren

balioak sentiberatasun kristauz, koherentez eta erakargarritz”, adierazi zuen Gasteizko gotzainak .

Bestalde, Egizabalek Roberto Fernández de Larrinoa irakaslearen oroimenezko hitz amultsuak esan zituen, egun batzuk lehenago hil zen eta.

Hurrengo saria Matxalen Ziarsolok jaso zuen. Eskubaloi-jokalari ohiak hamasei urtetan jantzi zuen Bera Bera taldeko elastikoa eta 2016an utzi zion kirol profesionalari, hamalau titulu eskuratuta. Ziarsolok esan zuen kirolak aukera paregabea eskaini diola “jende miresgarria” ezagutzeko eta horiek erakutsi dizkiotela “ahaleginaren, konpromisoaren eta ilusioaren balioak”.

Pedro Luis Uriartek, Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Ogasun sailburu ohi eta Ekonomia Itunaren aitak azaldu zuen, sasoia zenean, Ekonomia Ituna “ezarritako zigorra izan zela, hau da, gainerako probintzien itunarekin berdintzeko ahalegina”.

“Gaur egun, Ekonomia Itunari esker, munduan bakarra den eredu horretan oinarrituta, Euskadi errealitate desberdina da, inor ez babesik gabe uzten duen aukeraz beteriko herrialdea da”, adierazi zuen.

Uriartek “Ekonomia Itunarekin eta herrialdearekin” konpromisoa hartzeko ekinbidea aldeztu zuen eta azpimarratu zuen itunak “elkartzen gaituela” eta, gainera, gizarte-balio handia duela, “gure gizarte-ongizatearen funtsa delako”.

Seigarren saria 'Guernica' margolanaren unibertso sinbolikoak jaso zuen, “iraganeko izugarrikeriaren irudia eta bakearen egungo ikurra delako”. Horrela, gogorarazi zen ekitaldian 1937ko udaberrian euskal herri ugari pairatu zituztela bonbardaketak “herritarren artean izua zabaltzeko”.

Hiroshima, Irak edo iheslarien zorigaitzaren gaineko aipamenez hornituriko bonbardaketen antzezpenaz gozatu ondoren, Gernikan, Durangon eta Otxandion izandako erasoetatik bizirik atera ziren hiru lagunek –María Ángeles Ortiz de Zarate, Andone Bidaguren eta Pilar Bilbao– jaso zuten saria, “etorkizunaren ordezkari” diren hiru gaztek –Pello Iriondo, Garoa Basterretxea eta Mikel Lasuen– lagunduta.

Modu horretara, Sabino Arana Fundazioak nabarmendu nahi izan zuen, gaur egun, Pablo Picassoren 'Guernica' margolana “bakearen aldeko borrokaren ikurra dela, nahiz eta hamaika gerraren ezbeharrak eta hondamendiak, iheslarien giza zoritxarrak eta pobrezia nahiz berdintasun ezaren gaitz kronikoak ilundu egiten dituen gatazka historiko batzuen amaierak ekarritako argia”.

Sabino Arana Fundazioaren izaera anitza dela eta, fundazioko ordezkariak hainbat ekitalditan parte hartu dute beste erakunde eta antolakunde batzuetako ordezkariekin batera (fundazioaren jardueraren ziozkoak ez dira kontuan hartu atal honetan).

2017ko ekitaldian, egun arte, ondokoetan parte hartu dugu:

- Urtarrilaren 28an, Sartagudako Oroimenaren parkean, frankismoaren eta errepresioaren biktimen aldeko omenaldian eta lore-eskaintzan parte hartu genuen. Nafarroako herri horretako udalak eta Bizkaiko Batzar Nagusiek antolatu zuten omenaldia eta Gernikako arbolaren kimu bat landatu zen bertan.
- Urtarrilaren 30ean, Duintasunaren Kolunbarioaren inaugurazioan parte hartu genuen Elgoibarren. Eusko Jaurlaritzak antolatu zuen ekitaldia eta, bertan, zenbait elkarte eta erakunde izan ziren: Aranzadi Zientzia Elkartea, oroimena berreskuratzeko lanean diharduten elkarteak, Sabino Arana Fundazioa...
- Otsailaren 2an, Euskaltzaindiko, Bilboko Udaleko, EuskalPenKlubeko eta DEIAko ordezkariak batera, plaka bat jarri genuen EGUNA egunkaria, euskara hutsez argitaratutako lehen egunkaria, sortu zeneko atarian.
- Otsailaren 12an, Errepublikaren aurkako matxinatuek 1937ko neguan bizi ziren herrietatik indarrez aterarazi zituzten pertsonak –gehienak, emakumeak eta adingabeak– aintzateste eta omentzeko ekitaldian parte hartu genuen Zumaian. Gipuzkoako Foru Aldundiak, Zumaia Udalak eta lurralde horretako beste udalerri batzuek antolatu zuten ekitaldia.
- Otsailaren 26an, Gernika, Durango eta Otxandiko bonbardaketetatik bizirik atera ziren lagun batzuek Gernikako batzar-etxean gorde zuten Sabino Arana Sarien XXVIII. edizioan, urtarrilaren 29an, jasotako saria.
- Martxoaren 5ean, Matxixako lurmuturrean, *Euzkadi'ko Gudontzidiaren Laguntza'ko Ontzitaldea* osatu zuten gudarien omenezko ekitaldian parte hartu genuen. Matxixako elkarteak antolatu zuen omenaldia.
- Amurrioko Udalarekin elkarlanean, “Galíndez” izeneko erakusketa egon zen ikusgai Arabako herri horretako Bañueta kiroldegian apirilaren 1etik 30era. Jesús de Galíndezi buruzko irudiz eta argibidez hornituriko panel batzuek gogora

- ekarri ziguten euskal politikari, legelari eta idazlea bahitu, erail eta desagerrarazi zutenetik 61 urte igaro zirenean.
- Apirilaren 6an, Deustuko Unibertsitateko errektorea eta errektoreordea, José María Guibert eta José Antonio Rodríguez Ranz, hurrenez hurren, izan ziren bisitan gure instalazioetan. Guibert eta Rodríguez Ranz jaunek arreta berezia erakutsi zuten fundazioan gordetzen den Jesusen Lagundiari eta Deustuko Unibertsitateari lotutako dokumentazioan.
 - Apirilaren 9an, Euskadiko Galiziako Etxeen Irmandade deritzon antolakundearekin elkarlanean, Alfonso R. Castelao idazle, marrazkigile eta nazionalismo galziarraren sortzaileari omenaldia egin genion, azken urteetan bezala. Ekitaldi horretan, lore-eskaintza egin zen Galiziako politikariari eskainitako monumentuaren aurrean, Europa parkean, Bilboko Txurdinaga auzoan.
 - Apirilaren 25etik maiatzaren 14ra, Hondarribiko Arma Plaza interpretazio etxean, *“Kandido Saseta, Euzko Gudarosteko komandantea eta bere ohorez antolatutako batailoia”* izeneko erakusketa egon zen ikusgai. Erakusketaren helburu nagusia izan zen Kandido Saseta oroitzea, hura erail zutenetik 80. urteurrena bete zenean, baita haren izena hartu zuen Euzko Gudarosteko batailoia osatu zuten gudari guztiak ere. Erakusketa hori informazio-panel, argazki eta sasoiko ale ugariz osatuta dago, hala nola agiriak, armak eta askotariko gauzakiak. Sabino Arana Fundazioak hainbat gai, gauzaki eta agiri laga zituen. Gipuzkoako beste udalerri batzuetara eramateko asmoa dauka fundazioak.
 - Apirilaren 26an, beste erakunde, herrialdeko agintari eta Gerra Zibiletik bizirik atera ziren hainbat lagunekin batera, Gernikan, hiribilduko bonbardaketan izandako biktimen omenez egiten den lore-eskaintzan parte hartu genuen.
 - Egun horretan bertan, Santurtzin izan ginen, Eusko Jaurlaritzak, GOGORA Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuak eta Santurtziko Udalak antolatutako ekitaldian, gerratik ihesi, orain dela 80 urte Euskadiko hainbat portutatik ontzietan atera ziren 20.000 neska-mutikoen omenez eta oroimenez.
 - Ekainaren 7an, *Compromiso por Galicia* alderdiko ordezkarien bisita izan genuen. Fundazioaren eta fundazioak EAJ-PNV alderdiarekin duen loturaren inguruko gaiak jorratu ziren.

- Ekainaren 17an, Gernikako hilerrian lurperatutako 82 gudari gipuzkoarren omenezko ekitaldian parte hartu genuen, Gernikako bonbardaketaren 80. urteurrena oroitzeko.
- Ekainaren 18an, Artxandako “Aterpe 1936” monumentuaren aurrean, Gerra Zibileko gudari, miliziano eta emakumeen omenezko ekitaldian parte hartu genuen (80. urteurrena).
- Ekainaren 22an, 29an eta 30ean, *“Itxaropena ez da inoiz galtzen. Encartaciones. 1937. Los últimos meses de la Guerra Civil en Euskadi”* izenburuz antolatutako ekitaldietan parte hartu genuen Turtziozen: erakusketaren inaugurazioa, liburu baten aurkezpena, “Azken lubakia” izeneko dokumentalaren aurkezpena eta omenezko ekitaldiak. Sabino Arana Fundazioak horietan guztietan lagundu du aholkularitza historikoa emanda, erakusketan jartzeko gaiak lagatuta...
- Uztailaren 3an, Euskadiko Agiritegi Historikoan, “Bilboren erorketa, lehen planoan” izeneko erakusketa inauguratu genuen. Erakusketa Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren, Indalecio Prieto Fundazioaren, Lekeitioko Udalaren eta Bilboko Euskal Museoaren lankidetzaz prestatu da.
- Irailaren 4an, “Berriro inoiz ez. Gerrako irudiak, 1936-1939” izeneko erakusketa inauguratu genuen Mundakan.
- Urriaren 6an, “Berriro inoiz ez. Gerrako irudiak, 1936-1939” izeneko erakusketa inauguratu genuen Gueñesen.
- Azaroaren 29an, “Berriro inoiz ez. Gerrako irudiak, 1936-1939” izeneko erakusketa inauguratu genuen Bakion.

- Mezu@: harpidedun berriak hartzen ahalegindu gara argitalpena sendotzeko.
- Euskadiko historiari lotutako politika, kultura, kirol, gizarte eta beste arlo batzuetako gertakizunen urtemugak eta Sabino Arana Fundazioaren jarduerak zabaldu ditugu hainbat sare sozialetan (Facebook, Twiter eta Instagram).
- Mezu@ berripaper elektronikoa bidali diegu harpidedunei urtero antolatzen ditugun jardueren berri emateko. Erabiltzaileen kopuruari eustea da asmoa.
- Jarduerak zuzenean eskaini ditugu, *streaming* bidez; bestetik, bideoak ere gorde ditugu gure webgunetik ikusi ahal izateko.
- Sabino Arana Fundazioaren webgunean ostatatuta dagoen datutegia aldizka eguneratu dugu, gure agiri-funtsetara batzen ditugun liburu, aldizkari, egunkari eta euskal historiari buruz argitaratu diren artikuluei buruzko argibidez hornituta.
- Webguneak: Fundazioarena, Agirre lehendakaria, Sabin Etxea eta SAG150 (Sabino Arana).
- Artikuluak idatzi ditugu DEIA egunkariarentzat, euskal historiari eta antropologiari lotutako askotariko gaien inguruan.
- Historia ikertu eta zabaltzeko lan eta argitalpenetan parte hartu dugu.
- Mahai-inguruetan, liburuen aurkezpenetan, jardunaldietan, hitzaldietan, hedabideetako saioetan eta abarretan parte hartu dugu.

2017an, 80 urte bete dira euskal herri eta hiri ugari bonbardatu zituztenetik, 80 urte Gerra Zibila Euskadin amaitu zenetik eta milaka euskal herritarren atzerrialdi luzea hasi zenetik, 80 urte diktadura hasi zenetik... Bestalde, euskara hutsez argitaratu zen lehen egunkariaren, EGUNAREN, 80 urteurrena ospatu dugu. 100 urte bete dira euskal erakunde batean –Bizkaiko Aldundian– abertzaleek gehiengo atera zutenetik; gehiengo hari esker, errotik aldatu zen gure erakunde horretan lan egiteko modua: erakundearen beraren eraberritzea etorri zen, autogobernuaren defentsa, euskara eta euskal kultura eta euskal abertzaletasunaren asmo eta jomuga politikoak. Era berean, Balfourreko adierazpenaren mendeurrena beteko da, NBEk proposatutako Palestinaren banaketaren 70. urteurrena, 50 urte beteko dira 1967ko Sei Eguneko gerra gertatu zenetik eta Zisjordania eta Ekialdeko Jerusalem okupatu zituztenetik, 30 urte joan dira lehen intifada abiatu zenetik eta 10 urte Palestina bereizi eta Gazako zerrenda blokeatu zutenetik. Horiek guztiak gogoraziko ditugu mintegi, hitzaldi, mahai-inguru eta erakusketen bidez.

Era berean, *Hermes* aldizkariaren hiru ale argitaratu ditugu, hain zuzen ere, 55, 56 eta 57. zenbakiak. Eta Sabino Arana sarien XVIII edizioa ospatu dugu.

Egitasmo honetan honako elkarte eta erakundeek antolatutako ekitaldietan parte hartu dugu: Euskaltzaindia, Euskadiko Agiritegi Historikoa, Zuzenbidearen Euskal Akademia, Aranzadi Zientzi Elkarte, udalak, Europar Demokraten Institutua (IED), Europako Alderdi Demokrata (PDE-EDP), ...

Sabino Arana Fundazioaren helburu nagusietako bat emakumeen parte-hartzea bultzatzea eta genero-berdintasuna sustatzea da fundazioak antolatzen dituen jarduera guztietan. Emakumeen eta gizonen arteko Berdintasun Legeari jarraiki, jarduerak garatzen dituenean, fundazioak beharrezko neurriak ahalbidetzen ditu berdintasun-printzipioa eraginkortasunez betetzeko eta printzipio hori funtsatzen duten balioak eta jardunbideak sustatzen ditu.

Gure deialdien izaera irekia dela eta, euskal gizarte osoa dugu gure jardueren onuradun. Gure jarduera guztien zabalkundea Euskal Autonomia Erkidegoko hiru hiriburuetan nahiz Euskal Herriko gainerako herrialdeetan garatuko da.

Illo horretan, Sabino Arana Fundazioak gizarte anitzaren aintzatespena eta babesa dauka, gizarte- nahiz politika-arloan. Egitasmo honetan bidelagun ditugun antolakunde, elkarte eta norbanakoen artean, ondokoak nabarmenduko ditugu: Aranzadi Zientzi

Elkartea, udalak, Europar Demokraten Institutua (IED), epaile entzutetsuak, fiskalak, zigor-arloko abokatuak, politikariak, irakasleak...

Beste alde batetik, esan beharra dago Sabino Arana Fundazioko kideok neurriak hartzen ditugula euskararen erabileraren garapena eta normalizazioa ziurtatzeko helburuz, alde batetik, gure herriaren kultura-ondarearen funtsezko elementua delako eta, bestetik, gaztelaniarekin batera, Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde guztietako hizkuntza ofiziala delako. Horregatik, bi hizkuntza ofizialak darabiltzagu Fundazioaren jarduera guztietan, barruko harremanetan (Patronatuaren batzarrak, jarduerak antolatzeko bilerak...) nahiz kanpoko harremanetan (bazkideentzako komunikazioak, hedabideentzako deiak, gure jardueretan parte hartzeko gonbidapenak...).

Mintegietan, batez beste, jakintza-arlo askotako berrogeita hamar bat adituk hartzen dute parte.

Hitzaldietara, berriz, ehun bat lagun etortzen ohi dira.

Lortutako emaitzak kontutan izanda aurreikuspenak behar den bezala bete direla uste dugu.